




AUKERA PROBLEMAK

1) Eskolako autobusean 11 ume daude. Lehenengo geltokian 8 ume jaisten dira eta 7 igotzen dira. Zenbat ume daude orain autobusean?

- a) 10 ume b) 12 ume c) 26 ume

2) Ikerrek 12 karamelo ditu eta Nereak Ikerrek baino 8 gehiago. Zenbat karamelo ditu Nereak?


- a) 4 karamelo b) 20 karamelo c) 6 karamelo

3) Nire aita eta biok erosketak egitera joan gara. Mandarinetan 5€ gastatu ditugu, 8€ laranjatan eta 12€ saltxitxatan. Zenbat euro gastatu ditugu fruitetan?

- a) 25€ b) 20€ c) 13€

4) Nire ahizpak 22 urte ditu, eta nik berak baino 6 urte gutxiago ditut. Zenbat urte ditut?

- a) 28 urte b) 14 urte c) 16 urte



5) Mohamed-ek 9€ zituen. Bere amak 8€ eman dizikio eta 7€ko estutxe bat erosi du. Zenbat diru sobratu zaio?

a) 10 €

b) 8€

c) 24€

6) Loreak 13 boligrafo ditu. Nahiak Loreak baino 6 boligrafo gutxiago ditu eta Samantak Nahiak dituen boligrafoen bikoitza du. Nork ditu boligrafo gehien?

a) Samantak

b) Loreak

c) Nahiak

7) Rayan, egunero irtetzen da kalera bizikletarekin ibiltzera. Egunean 3 kilometro egiten baditu, zenbat kilometro egingo ditu astean?

a) 10 kilometro

b) 21 kilometro

c) 15 kilometro

8) Patioan kaniketan jolasten ibili gara. Hasieran 7 kanika nituen. Yaserri 5 kanika irabazi dizkiot eta Ersiti 4. Baina Iboneren kontra 8 kanika galdu ditut. Zenbat kanika ditut orain?

a) 8 kanika

b) 16 kanika

c) 24 kanika